

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 15/2020 Erabakia, urtarrilaren 28koa. Arabako Domina Armando Llanos Ortiz de Landaluze jaunari eta Arabako Arkeologia Institutuari ematea, Arabako arkeologia ondarea ikertu, aztertu eta zabaltzeko lan goraipagarriaren ezagutzaz

Foru Gobernu Kontseiluak erabaki du 2020ko Arabako Domina ematea Armando Llanos Ortiz de Landaluzeri eta Arkeologiarako Arabar Institutuari, Arabako ondare arkeologikoa ikertu, aztertu eta zabaltzean egindako lana goresteko.

Armando Llanos Ortiz de Landaluze Gasteizen jaio zen 1935ean. Arte grafikoetan jardun du lanbidez eta bizitza osoa eman du Arabako ondare historikoa ikertzen eta zabaltzen, batez ere Arkeologiarako Arabar Institutuan, non erantzukizuneko egitekoak izan baititu luzaro.

José Miguel Barandiaranen aholkularitza eta lankidetzatza izan zuen lehenengoz 1961ean; izan ere, Enrique Eguren gasteiztarrekin batera ere ikerketa arkeologikoak egin zituen Araban XX. mende hasieratik.

Armando Llanos Ortiz de Landaluzeren jarduna historiaurreko bi aro zehatzetan oinarritzen da: Brontze Aroa eta Burdin Aroa. Azpimarratzekoak dira Arabako zenbait aztarnategitan egindako lanak, bereziki Hoya herrixkakoak, Arabako Errioxan. Hainbat memoria eta argitalpen espezializaturen egilea da eta irakaskuntzan eta zabalkundean ere lan garrantzitsua egin du. Hainbatetan goratu dute bere lana sariak jasoaz, hala nola Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen edo Historiaren Errege Akademiaren beste batzuk.

Gainera, Llanos arkeologoak bere artxibategia Arabako Foru Aldundiari eman zion dohaintzan 2002an. Bertan lau hamarkada baino gehiagoko material grafikoa, argazki eta inprimatua, fitxak, marrazkiak, planoak eta inbentarioak jasotzen ziren, hain zuzen, Araban egindako esku hartze arkeologiko nagusiei buruzkoak.

Arkeologiarako Arabar Institutua 1957an sortu zenetik, lehenengo lan batzorde gisa eta georago Arabako Foru Aldundiko Kultura Kontseiluko Atal gisa, Arabako ondarea kontserbatzearen alde hasi zen, bai eta hura aztertu, ikertu eta zabaltzearen alde ere. Beste ekimen kulturalen modura, Arkeologiarako Arabar Institutua oinarritu zen gure lurraldean aspalditik dagoen tradizio arkeologiko luzean. Arkeologiarako Arabar Institutuak gaur egun zenbait ikerketa programa eta lan egiten jarraitzen du.

1966an egindako lanak ezagutarazteko, Arabako Arkeologia Azterlanen lehen alea argitaratu zen (dagoeneko 28 ale argitaratu dira eta lehenak berrargitaratzen hasi dira).

Ondorioz, Arabako Foru Aldundiko Gobernuak aintzatespena eta esker ona erakutsi nahi die Arkeologiarako Arabar Institutuari eta Armando Llanos Ortiz de Landaluzeri, ondare arkeologikoa ikertzen eta zabaltzen egindako lan eskergarengatik eta Arabako kulturarekin izandako konpromisoagatik haien ibilbide osoan zehar.

2020ko apirilaren 28an, ospe handiko ekitaldi batean, Aldundiak Arabako Domina emango die, hain zuzen, foru erakundeak ematen duen saririk handiena.

Horregatik, apirilaren 8ko 23/2008 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundiaren ohore eta goraipamen arautegia onartzen duenak, bere 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arabako diputatu nagusiak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Domina ematea Armando Llanos Ortiz de Landaluzeri eta Arkeologia-rako Arabar Institutuari, Arabako ondare arkeologikoa ikertu, aztertu eta zabaltzean egindako lana goresteke.

Bigarrena. Domina ematea 2018ko apirilaren 28an izango da, berariaz horrexetarako egingo den ekitaldi batean.

Hirugarrena. Domina eman izana Arabako Foru Aldundiaren Protokolo eta Harreman Publikoetarako Zerbitzuari atxikitako ohore eta goraipamenen erregistroan inskribatzea, dagokion atalean.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN